

NIRE LIBERAZIOA DELA ETA

Azken plenoan nire liberazioaren gaia zegoen mahai gainean. Plenoaren aurreko puntuen adostasun eta akordio maila ikusita, harritu egin gintuen EAJko zinegotzi guztien kritika politiko eta pertsonalen tonuak. Telebistaz plenoa ikusi beza bakoitzak eta ondorioak atera bitza informazio gehiago nahi izanez gero.

Ez da erraza kritika politikoaren, adierazpen askatasunaren, konfrontazio zilegiaren eta erasoaren arteko muga ezartzen. Ni naiz lehena onartzen ez dugula beti asmatzen horretan politikariok. Ez zen gustukoa izan niretzat astearteko plenoa, gustatzen ez zaidan bezala EH Bilduko zinegotzi bezala alderdi politikoen egoitzatan margoketak egitea edota zinegotzi zehatzak irainduz eginiko *whatsapp* kateak zabaltzea.

Alderdiok gure artean lehiatzen dugu konfrontazio politikoan eta hauteskundeetan. Era berean, ezinbestekoa da hitz egin eta adostasunera ailegatzea gai batzuetan besteotan konfrontatzen garen bitartean. Hitz egin eta bakoitzaren proiektua defendatu. Entzun, argudiatu eta konbentzitu.

Ez dut polemikarik piztu nahi idatzi honekin, justu alderantzizkoa. Gaia itxiztat ematen dut pertsonalki eta hasi berri dudan zeregin berri honetan herritarrei benetan axola zaizkien gaitan zentratu nahi dut, gai topikoa den aparkalekueetatik hasita Euskal Herriaren independentziaraino. Izan ere, Katalunian zerbait ikasi badut da irribarrea eta irmotasuna ez direla bateraezinak. Salatu behar denean salatuko dugu, lehen baino irmoago gainera baina irribarreari uko egin gabe gure proiektuan sinisten dugulako. Justizia soziala eta Euskal Herriaren subiranotasuna defendatuko dugu dagokigun foro guztietan udalean eta kalean ezberdinon artean hitz eginez eta eztabaidatuz.

Eneko Barberena Mondragon

EH Bilduko zinegotzia